



Espediente zk./Nº Expediente: 2020SDBD0024 **Erreg. data/Fecha Reg:**
Erreg. zk. / Nº Registro: 000000
Gaia/Asunto: Koldo Mitxelena Ikerketa Beka 2020.
Eskatzailea/Solicitante: SDBD **NAN(IFK)/DNI(NIF):** 90909090A
Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA
Dekretu zk. / N.º Decreto: 1398

DEKRETUA

Legeak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, ondorengo DEKRETU hau eman dut:

AURRERAKIAK

Dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorrak, azaroaren 17koak, xedatzen du tokiko udalbatzek dirulaguntzen oinarri arautzaile egokiak ezartzeko beharra.

Araudi hori aplikatzeko, Udalak onartu du Erreterriako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko GAO).

2019ko azaroaren 19an 3364 zk.ko alkatearen dekretu bidez onartu dira Erreterriako Udalak 2020 urtean eta 2020-2021 ikasturtean zehar lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

Agiritegia eta Argitalpenak azpisaileko teknikariak 2020ko uztailaren 1ean urteko deialdiaren ebazpen proposamena egin du.

Erabaki honetan arautzen eta deitzen diren dirulaguntzak Udalaren 2020-2023rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan bilduta daude.

Aholkulari juridikoak bere oniritzia eman dio ebazpen proposamenari 2020ko uztailaren 2an.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Iker Rocandio Etxeberriak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

DECRETO

En uso de las atribuciones que me confiere la Ley, vengo a dictar el siguiente DECRETO:

ANTECEDENTES

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece la necesidad de que las corporaciones locales establezcan las oportunas bases reguladoras para el reparto de subvenciones.

En aplicación de esta normativa el Ayuntamiento de Erreterria ha aprobado la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Erreterria (B.O.G. de 10 de agosto de 2015).

Mediante Decreto de la Alcaldesa nº 3364, de 19 de noviembre de 2019, se aprueban las bases generales reguladoras de las subvenciones a conceder por el Ayuntamiento de Erreterria mediante concurso durante el año 2020 y el curso escolar 2020-2021.

La técnica de la subárea Archivo y Publicaciones ha elaborado la propuesta de resolución de la convocatoria anual el 1 de julio de 2020.

Las subvenciones que se regulan y convocan en el presente Acuerdo están recogidas en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento 2020-2023.

El asesor jurídico ha dado su visto bueno a la propuesta de resolución el 2 de julio de 2020.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me ha delegado la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad de Iker Rocandio Etxeberria a la propuesta de decreto obrante en el expediente.

Por la presente,

**EBATZI DUT**

1.- Koldo Mitxelena 2020ko Ikerketa Beka emateko deialdia onartzea, eranskin gisa erantsi diren oinarriekin bat. Oinarri horiek deialdi hau arautuko dute.

2.- Gehienez 15.000 euroko gastua baimentzea 2020. urteko Udal Aurrekontuaren hurrengo partidaren kontura: 1.1830.480.01.463.00.

Ondoren, egoki den kreditu aldaketaren bitartez partida horren kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Oinarrietan jasotzen den bezala, kopuru osoaren %30a beka ematen den une berean ordainduko da, aurreordainketa moduan, dagokion izapide administratiboak burutu ondoren.

Konpromisoa hartu, diru-laguntzaren gainontzeko %70ari aurre egiteko partida nahikoa jasoko dela, 2021 eta 2022ko aurrekontuetan, edo bestela, 2020ko partida zabalduan.

3.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran.

RESUELVO

1.- Aprobar la convocatoria para la concesión de la Beca de Investigación Koldo Mitxelena de 2020 de conformidad con las Bases que se adjuntan como anexo, que regirán la presente convocatoria.

2.- Autorizar un gasto máximo de 15.000 euros con cargo a la siguiente partida del Presupuesto Municipal del año 2020: 1.1830.480.01.463.00.

Si dicha partida posteriormente fuese ampliada en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

Tal y como se recoge en las bases, el 30% del total se abonará en el mismo momento de la concesión de la beca, como adelanto, previa realización de los trámites administrativos correspondientes.

Para hacer frente al restante 70 % de la subvención, adoptar el compromiso de recoger partida suficiente en los presupuestos de 2021 y 2022, o en su defecto, en la ampliación de la partida del 2020.

3.- Dar cuenta de la presente resolución al Pleno municipal en la siguiente sesión ordinaria.

Errenteria, 2020ko uztailaren 07a

Errenteria, 07 de julio de 2020

Zinegotzi Delegatua /

Iñaki Queralt Coira

**ERANSKINA – DIRULAGUNTZA LERROA: KOLDO MITXELENA XV. Ikerketa Beka (2020)****ANEXO – LÍNEA DE SUBVENCIÓN: XV Beca de Investigación KOLDO MITXELENA (2020)****Oinarriak**

Deialdia honako oinarri hauek arautzen dute, eta bertan arautzen ez den guztirako Errenteriako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko GAO), azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipatu dekretua garatzen duen Araudia—eta aplikagarria den gainerako legedi osagarria hartuko dira kontuan.

1. Dirulaguntzaren xedea

Errenteriako Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) laguntzarekin, euskarazko ikerketa bultzatzeko, emakumezkoen ikerketa sustatzeko, Errenterian inguruko ezagutza areagotzeko eta Koldo Mitxelena errenteriar filologoa omentzeko, honen izena duen ikerketa bekarako deialdia egiten du.

Ikerketa esparruak Koldo Mitxelena Elissaltek bere bizitzan zehar landutako honako hauek dira: euskal kulturaren historia, artea, soziologia, antropologia, ekonomia, hizkuntzalaritza, literatura, etnologia, zuzenbidea eta, oro har, giza zientziei buruzko ikerlanak

2020ko deialdian, honako ikerketa esparruak sartuko dira: ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA.

2. Hizkuntza

Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutuko dira.

3. Originaltasuna

Ikerketa-lanak originala eta argitaratu gabea izan behar du.

4. Iraupena

Bekaren iraupena gehienez 18 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.

5. Zenbatekoa**Bases**

La convocatoria se regirá por las presentes bases y en lo no regulado en las mismas, por la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (BOG del 10 de agosto de 2015), la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento que lo desarrolla, y demás legislación complementaria aplicable.

1.- Objeto de la subvención

El Ayuntamiento de Errenteria, en colaboración con la Universidad Vasca de Verano (UEU), convoca una beca de investigación, con el objeto de impulsar la investigación en euskara, promover la investigación de mujeres, aumentar el conocimiento sobre Errenteria y homenajear al filólogo errenteriarra Koldo Mitxelena.

Los ámbitos de investigación son los que cultivó Koldo Mitxelena a lo largo de su vida: historia de la cultura vasca, arte, sociología, antropología, economía, lingüística, literatura, etnología, derecho y, en general, investigaciones sobre las ciencias humanas.

En la convocatoria de 2020 los ámbitos de investigación serán: ARQUITECTURA y URBANISMO.

2. Idioma

El proyecto, el trabajo de investigación y la memoria se realizarán en euskara.

3. Originalidad

El trabajo de investigación debe ser original y no debe haberse publicado antes.

4. Duración

La duración máxima de la beca será de 18 meses, a contar desde el día que se adjudique la misma.

5. Cuantía



Beka honen diru zenbatekoa 15.000 eurokoa izango da.

6.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua

15000 1.1830.480.01.463.00 2020

7.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era.

ESKATZAILEAK

Beka norbanakoez nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu horretan, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.

ESKABIDEETARAKO ARAUAK

Beka eskuratzeko eskaerak dokumentazio hau eduki behar du:

1 Koldo Mitxelena beka eskatzeko orria, behar bezala beteta (eredua udal webgunean, www.errenteria.eus eskuragarri).

2 Espediente akademiko zehaztuaren eta osatuaren fotokopia. Lantaldeen kasuan partaide guztiak.

3 Eskatzailearen euskarako gaitasuna frogatzen duen dokumentua: EGA edo baliokide* den titulu edo ziurtagiriaren fotokopia. Lantaldeen kasuan berdin, partaide guztiek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

*(kontuan izan, 47/2012 DEKRETUA, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatetik salbuesteko dena; 297/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, euskararen jakite- maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dituen).

4 Eskatzailearen curriculum vitae behar bezala beteta, Udalak eta Udako Euskal Unibertsitateak prestatutako ereduaren arabera (eredua www.errenteria.eus web orrian eskuragarri dago), eta curriculum vitaean adierazitako titulazioen eta

La cuantía de la beca otorgada será de 15.000 €.

6.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.

15000 1.1830.480.01.463.00 2020

7.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.

SOLICITANTES

La beca podrá ser individual o podrá recibirla un equipo conformado para ese fin. En el segundo caso, se deberá nombrar un/a director/a responsable del trabajo de investigación.

NORMAS PARA LAS SOLICITUDES

La solicitud de beca deberá contener la siguiente documentación:

1 Hoja de solicitud de beca Koldo Mitxelena debidamente cumplimentada (modelo disponible en la web municipal, www.errenteria.eus).

2 Fotocopia del expediente académico detallado y completado. En el caso de los grupos de trabajo, de todas las personas participantes.

3 Documento acreditativo del nivel lingüístico en euskera de la persona solicitante: fotocopia del título o certificado EGA o equivalente*. En el caso de los grupos de trabajo, igualmente, todas las personas participantes deberán demostrar dicha capacidad.

* (téngase en cuenta el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de las enseñanzas oficiales cursadas en euskera y de exención de la acreditación del nivel de euskera mediante títulos y certificados lingüísticos; el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas).

4 Curriculum Vitae de la persona solicitante debidamente cumplimentado, según modelo elaborado por el Ayuntamiento y la Universidad Vasca de Verano, disponible en la página web www.errenteria.eus, y fotocopia de los certificados de titulaciones y méritos



merituen egiaztagirien fotokopiak. Lantaldeen kasuan, partaide guztienak.

5 Gaiaren azalpena eta lana zelan burutuko litzatekeen azaltzen duen proiektua, ahalik eta zehatzena (15 orrialdekoa gehienez), ondokoak azalduz:

- Lanaren ikerketa esparrua.
- Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera.
- Ikertzailearen edo taldearen aurreko esperientzia.
- Helburuak.
- Materialak, baliabideak eta lan metodologia.
- Lana garatzeko kronograma.
- Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.
- Bestelako finantzabideak, baldin eta baleude.

8.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

EPEA

Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea 2020ko irailaren 1etik urriaren 31 arte egongo da zabalik, biak barne.

LEKUA

Dokumentazioa, ahal dela, telematikoki aurkeztuko da. Aurrez aurre eginez gero, Errenteriako ZU! Zure Udala zerbitzuan (Errenteriako Udala, beheko solairua, Herriko plaza z/g) aurkeztuko da. Era berean, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko, 39/2015 Legeak, 16.4 artikuluan izendatzen dituen leku eta erregistroetan ere aurkez daiteke.

Errenteriako Udaleko Artxibo eta Argitalpenak zinegotziari zuzenduko zaizkio eta dokumentazioa aurkezteko epearen barruan funtzionarioak emandako data eta zigilua eduki beharko du.

Eskabidea eta gainontzeko agiriak postabulegoetan aurkezten badira, betiere aurkezpen epearen barruan, gutun-azal ireki batean aurkeztu

indicados en el curriculum vitae. En el caso de los grupos de trabajo, de todas las personas participantes.

5 Exposición del tema y proyecto de cómo se llevaría a cabo el trabajo, lo más detallado posible (máximo 15 páginas), indicando:

- Ámbito de investigación del trabajo.
- Antecedentes y situación actual del asunto.
- Experiencia previa de la persona investigadora o del grupo.
- Objetivos.
- Materiales, recursos y metodología de trabajo.
- Cronograma de desarrollo del trabajo.
- Resultados previstos e interés de los mismos.
- Otros medios de financiación, en su caso.

8.- Plazo de presentación de solicitudes.

PLAZO

El plazo de presentación de las solicitudes y el resto de la documentación es del 1 de septiembre al 31 de octubre de 2020, ambos inclusive.

LUGAR

La documentación se presentará preferentemente de modo telemático. En caso de hacerlo presencialmente, se hará a través de ZU! Zure Udala (Ayuntamiento de Errenteria, planta baja, Herriko plaza s/n). Asimismo, podrán presentarse en los registros de las Administraciones Públicas señaladas en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Se dirigirán al concejal de Archivo y Publicaciones del Ayuntamiento de Errenteria, debiendo ser fechadas y selladas por el/la funcionario/a correspondiente dentro del plazo de presentación de instancias.

En caso de presentar la instancia en la oficina de correos, lo harán en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el/la funcionario/a de Correos antes de ser



beharko zaizkio postetxeko funtzionarioari, hark eguna eta zigilua jarri eta ziurtatu ahal izan dezan. Horrela bakarrik ulertuko da dokumentazioa postetxearen bulegoan entregatu zen egun berberean sartu zela Erreterriako Udala Erregistroan. Bekaren eskabidea da zigilatu beharrekoa.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, hamar eguneko epean konpondu edo beharrezko agiriak ekar ditzala eskatuko zaio interesdunari. Hala egingo ez balu eskaeran atzera egin duela ulertuko da, betiere alde aurretik ebazpena emanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

9.- Esleipen prozedura.

PROZEDURA:

Beka hau Artxibo eta Argitalpenak zinegotziak esleituko du, 2020ko abenduaren bukaera aldera, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren.

Proposamen hori epaimahaiak epaitutako merezimendu lehiaketa baten emaitza oinarritzat hartuta egingo da.

Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie.

Eskatzailearen puntuazioa, epaimahaikide bakoitzaren puntuak gehitu eta batez bestekoa izango da. Epaimahaikide guztiek dute hitz egiteko eta puntuazioa jartzeko eskubidea.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, epaimahaiak informazio osagarria eskatu dezake edo/eta hautagai batzuk proiektua defendatzera dei ditzake.

Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio.

Bekaren onuradunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamar egun baliokideko epean espresuki idatziz uko ez badio, ulertuko da beka eta

certificadas, dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro del Ayuntamiento de Errenteria en la fecha que fueron entregadas. Es la instancia la que debe estar sellada.

En caso de no presentar alguno de los documentos y justificaciones que se señalan en el apartado anterior, se concederá a la persona interesada un plazo de 10 días a los efectos de subsanar o completar la documentación aportada. Si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido/a de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

9.- Procedimiento de otorgamiento.

PROCEDIMIENTO

Esta beca será otorgada por la concejal de Archivo y Publicaciones, a finales de diciembre de 2020, tras conocer la propuesta del tribunal.

Dicha propuesta se realizará en base al resultado del concurso de méritos realizado por el tribunal.

La resolución se notificará por escrito a todas las personas solicitantes.

La puntuación lograda por cada solicitante será la media de la suma de puntos adjudicados por cada miembro del jurado. Todos los miembros del tribunal tienen el derecho a opinar y adjudicar puntos.

Tras el análisis de la documentación presentada por las personas solicitantes, el tribunal podrá requerir información complementaria o convocar a algunos/as solicitantes para la defensa de su proyecto.

Se le otorgará la beca a el/la solicitante que obtenga mayor puntuación. En caso de que renunciara, se le propondría al siguiente.

Se entenderá que el/la beneficiario/a de la beca acepta la misma, si en el plazo de 10 días a partir de la notificación de la concesión no hace una renuncia



oinarrietako betebeharrak ontzat ematen dituela.

Epaimahaiak lanak epaitu eta bekaduna nor/nortzuk den/diren jakinarazi ondoren, jatorrizko lanak erretiratzeko hamar egun baliokideko epea izango da. Epe horretan jasotzen ez diren lanak xahutu ahal izango ditu Udalak.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia parekidea izango da edo genero ikuspegia behar bezala txertatua dagoela bermatu beharko da. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- Batzordeburua:

Artxibo eta Argitalpenak zinegotzia edo berak delegatutako udalkidea.

- Batzordekideak:

Udalaren eta UEUren artean izendatutako eta aurkeztutako proiektuen esparruko 3 ordezkari edo aditu.

- Idazkaria:

Errenteriako Udal Artxiboko ordezkari bat

Horiez gain, epaimahaiak hala erabakiko balu, aurkeztutako gaien inguruko pertsona adituen laguntza eta aholkularitza eska dezake epaimahaiak.

IRIZPIDEAK

Honako alderdi hauek hartuko dira aukeraketarako irizpide nagusitzat:

- Eskatzaileen espediente akademikoa eta bere curriculum (0-10 puntu).
- Ikerketa proiektuaren interesa, zuzentasun eta balio zientifikoa, originaltasuna eta bideragarritasuna (0-50 puntu).
- Errenteriarekin harreman zuzena duena izatea (0-20 puntu).
- Emakumez soilik osaturiko lantaldea (20 puntu), %60-99 emakumezkoak dituen lantaldea (10 puntu)

10.- Bekadunen betebeharrak

1 Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren

expresa por escrito.

Una vez que el tribunal estudie los trabajos y comunique la identidad de las personas becadas, se establecerá un plazo de diez días hábiles para retirar los trabajos. Los trabajos que no se recojan dentro de dicho plazo podrán ser destruidos por el Ayuntamiento.

TRIBUNAL

La composición del tribunal será paritaria o se garantizará que en la misma se ha incorporado la perspectiva de género. El tribunal estará formado por las siguientes personas:

Presidente:

El concejal de Archivo y Publicaciones o persona en la que delegue.

Vocales:

3 representantes o personas expertas nombradas entre el Ayuntamiento de Errenteria y UEU en el ámbito de investigación de la presente convocatoria

Secretario/a:

Un/a representante del Archivo municipal de Errenteria

Además, el tribunal tiene la facultad de solicitar colaboración y asesoramiento de personas expertas en el ámbito al que se refiere la beca, siempre que lo considere oportuno.

CRITERIOS

Criterios de valoración:

- Expediente académico y Currículum de las personas solicitantes (0-10 puntos).
- Interés, corrección y valor científico, originalidad y viabilidad del proyecto de investigación (0-50 puntos).
- Relación de la temática del trabajo con Errenteria (0-20 puntos).
- Grupo de trabajo formado íntegramente por mujeres (20 puntos), grupo de trabajo formado al 60-99% por mujeres (10 puntos).

10.- Obligaciones de las/los becarias/os

1 Presentar un informe a los 9 meses de la concesión de la beca en el cual se refleje el desarrollo del trabajo de



araberako txosten bat bidaltzea bekaren lehen 9 hilabeteak igarotakoan.

2 Errenteriako Udalaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen esku egotea egindako lanen ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak.

3 Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezingo da egin Errenteriako Udalaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen baimenik gabe.

4 Bekaren 18 hilabeteak igarotakoan memoria (ikerlanaren beraren azken erredakzioa) aurkeztea. Lan horren bi ale entregatuko dira, tarte bikoitzez mekanografiaturik, korrelatiboki orrialdeztatua eta koadernaturik, baita euskarri formatu digitalean ere.

5 Lanaren luzerak 200 eta 400 orrialde artekoa izan beharko du, orrialdeko 30 lerroz eta lerroko 60 idazki zeinuz, grafikoak, argazkiak eta antzekoak dituzten orrialdeen kasuan izan ezik. Testua ez den elementu oro orrialdeetan zehar edo tokirik ez balego lanaren bukaeran, eranskin gisa, txertatuko da. Era horretako elementu bakoitzak behean bere azalpentxoak izan beharko du. Edozein kasutan, lanak gutxienez testuko 200 orrialderen baliokidea izan behar du. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontuan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxieneakoak betetzeko. Idazkera funtzio komunikatibora, kohesio sintaktikora, koherentziara eta zuzenketa formalera egokituko da.

6 Irudiak, marrazkiak, argazkiak eta abar, amaierako testuan sartuko diren arren, aparteko fitxategietan entregatu beharko dira, gutxienez hazbeteko 300 pixeleko bereizmenarekin, kalitate hori beharrezkoa baita inprimategian inprimatu ahal izateko. Bekaduna aurkeztutako ilustrazioen ustiapen eskubideen egilea/titularra izango da, baita erator litezkeen irudi eskubideena ere, edota argitaratzeko beharrezkoak diren baimenak izango ditu

7 Egileak 30 lerro inguruko laburpena eta edukiaren berri ematen duten deskribatzaileak erantsiko ditu euskaraz gain, gazteleraz,

investigación (trabajo realizado hasta la fecha y lo que falta para su finalización).

2 Facilitar el acceso del Ayuntamiento de Errenteria y la UEU a las notas, borradores, trabajos previos y resultados del trabajo de investigación.

3 Comunicar cualquier cambio en el plan previsto o en la composición del equipo de trabajo. No se podrá realizar ningún cambio de dicha índole sin el permiso del Ayuntamiento de Errenteria y la UEU.

4 Presentar la memoria final a los 18 meses de la concesión de la beca (redacción final del trabajo de investigación). Se deben presentar dos ejemplares del informe, mecanografiados a doble espacio, con paginación correlativa y encuadernados. También se debe presentar el trabajo en formato digital.

5 La extensión de la memoria final deberá ser entre 200 y 400 páginas con 30 líneas por página y 60 caracteres por línea, excepto en páginas con fotografías y gráficos. Todo elemento que no sea texto se incluirá en las páginas, y si no hubiera sitio se incluirá como apéndice al final de la memoria. Los elementos gráficos deberán llevar anotaciones al pie. De todas formas, la memoria deberá constar como mínimo de 200 páginas de texto. Los apéndices no contabilizarán para cumplir con el mínimo exigido. La redacción cumplirá con la la función comunicativa, la cohesión sintáctica, la coherencia y la corrección formal.

6 Las imágenes, dibujos, fotografías etc., además de ser incluidas en la memoria final, se entregarán en un fichero aparte, con al menos 300 píxeles de resolución, calidad mínima para que puedan ser impresas en imprenta. La persona becada será autor o autora o titular de los derechos de explotación de las ilustraciones, así como de los derechos que de las mismas se puedan derivar, o dispondrá de los permisos necesarios para su publicación.

7 El/la autor/a de la memoria deberá incluir un resumen de 30 líneas que recoja el contenido y los descriptores de la memoria, en euskera, castellano, francés e inglés.



frantsesez eta ingelesez.

8 Testualak ez diren lanentzako mugak ondoren ezarriko dira.

9 Egileak bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, horretarako Errenteriako Udala, UEU eta lanaren egilearen artean eguna eta ordua adostuta.

10 Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalitaterik ez badu, justifikazio edo gainditu ezinezko arrazoirik gabe, oinarri hauen 12. puntuan jasotako penalizazioak ezarriko zaizkio irabazleari. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez.

11.- Dirulaguntza (beca) ordaintzea.

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak burutu ondoren:

Kopuru osoaren %30a, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.

Kopuru osoaren %30a, beka ematen zaionetik 9 hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena (6.1. oinarriaren arabera) aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.

Gainontzeko %40a, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.

Lana amaituko ez balitz, oinarri hauetako 12. puntua (Itzulketak eta zigorrak) ezarriko da.

12.- Itzulketak eta zigorrak.

1 Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatu baino lehen eta Udalak aurretiaz errekeritu gabe, bekadunak bere borondatez saria itzultzen badu, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu. Udalak berandutze interesak kalkulatuko ditu. Diru-laguntzen Lege Orokorraren 38. artikuluan jasotakoari jarraituta.

2 Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea

8 Los límites de los trabajos no textuales se establecerán a posteriori.

9 El/la autor/a al finalizar el proyecto hará una presentación pública, para la cual acordará la fecha y la hora con el Ayuntamiento de Errenteria y la UEU.

10 Si hubiera incumplimiento de plazo por parte de el/la becario/a en la presentación del informe o de la memoria final, sin justificación suficiente o razón insalvable, se aplicarían las penalizaciones recogidas en el punto 12 de las bases. El tribunal decidirá si la justificación presentada es suficiente.

11.- Abono de la subvención (beca).

El pago se realizará de la siguiente forma, una vez realizados los trámites administrativos:

- El 30% del total, en el mismo momento de la concesión de la beca, en forma de prepago.

- El 30% del total, en el plazo de 9 meses desde la concesión de la beca, previa presentación y aprobación por el Tribunal del informe explicativo del trabajo realizado y de lo que se va a realizar a tal efecto (según la base 6.1).

- El 40% restante, al final de la beca, tras la presentación del trabajo y el visto bueno del tribunal.

En caso de no finalizar el trabajo, se aplicará el punto 12 (Reintegros y sanciones) de estas bases.

12.- Devoluciones y sanciones

1 En el caso de que la persona perceptora devuelva de forma voluntaria el premio, antes de la finalización del plazo de entrega del informe o de la memoria final y sin previo requerimiento del Ayuntamiento, el premiado/a deberá devolver el principal abonado más los correspondientes intereses de demora. El Ayuntamiento calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 38 de la Ley General de Subvenciones.

2 Cuando el premio se devuelva tras requerimiento del Ayuntamiento y una vez finalizado el plazo de



bukatuta Udalak errekeritu ondoren saria itzultzen denean, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa itzultzeaz eta dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz gain, ezarriko zaion zigorrari aurre egin beharko dio. Zigorra ordura arte jasotako diru-sariaren zenbatekoaren adinako isuna izango da.

13.- Lanaren jabetza

Lanen jabea Errenteriako Udala izango da. Udalak berarentzat gordetzen du ikerketak osoki edo/eta partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez, lehentasunez Udako Euskal Unibertsitatearekin, egoki deritzon. Betiere, lanaren egilea edo egileak aipatu beharko ditu.

Sortutako materiala aurkeztu eta urte biko epean Udalak argitaratu ez badu, egileak edo egileek Udalari baimena eskatu beharko lioke(te) material hori erabili ahal izateko. Egileak edo egileek, Udalak oniritzia jakinarazita, jasotako bekaren aipamena egin beharko du(te) (bekaren eta beka eman duen erakundearen eta laguntzailearen izenak jarriz) eta Udalari argitaratutako lanaren 20 ale eman beharko dizkio.

Bi kasuetan, argitalpena sarbide irekian egongo da eskuragarri, Creative Commons BY-NC-SA lizentziarekin: Aitortza – Ez-komertziala - Partekatu berdin 3.0 (CC BY-NC-SA 3.0 es) <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>

Horren arabera:

Aitortza: sarbide libreko argitalpen hau erabiltzean datu hauek adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak, argitalpenaren jatorrizko izenburua, argitalpenaren identifikazio-zenbakia (ISBN/ISSN) eta argitalpenaren lizentzia-mota.

Ez komertziala: argitalpen honen edukia ezin da helburu komertzialeko erabili.

Lizentzia berarekin partekatzea: argitalpen hau aldatzen edo eraldatzen bada, edo obra eratorri

presentación del informe o de la memoria final, el premiado/a deberá, además de reintegrar las cantidades percibidas y los intereses de demora correspondientes, hacer frente a la sanción con multa igual a la cantidad indebidamente obtenida que se le impondrá.

13.- Propiedad de los trabajos

El/la propietario/a del trabajo fruto de la beca será el Ayuntamiento de Errenteria. El Ayuntamiento se reserva el derecho de reproducir o publicar parcialmente o en su totalidad el trabajo cuando lo crea oportuno, por su cuenta o en colaboración mediante acuerdo, teniendo prioridad la UEU. Deberá mencionar siempre al autor/a o autores/as.

Si en el plazo de 2 años a partir de la presentación de la memoria final el Ayuntamiento no ha publicado el trabajo, el/la autor/a o autores/as podrán utilizar dicho material para lo que crean oportuno. En dicho caso el/la autor/a o autores/as deberán hacer mención de la beca recibida (mencionando el nombre de la beca, la entidad que lo adjudica y sus colaboradores) y darán 20 ejemplares del trabajo publicado al Ayuntamiento.

En ambos casos la publicación estará disponible en acceso abierto bajo la licencia Creative Commons BY-NC-SA: Reconocimiento – No Comercial -Compartir Igual 3.0 (CC BY-NC-SA 3.0 ES)

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>

Según la cual:

Reconocimiento: cualquier uso que se haga de esta publicación disponible en libre acceso deberá incluir los siguientes datos: nombre y apellidos del/de la autor/a, título original de la publicación, número identificativo de la misma (ISBN/ISSN) y la mención al tipo de licencia abierta bajo la que se publica.

No comercial: el contenido de esta publicación no puede utilizarse para fines comerciales.

Compartir bajo la misma licencia: si altera o transforma la presente publicación, o genera una obra derivada,



bat sortzen bada, sortutako obra Creative Commons lizentziapean banatu beharko da.

14.- Gorabeherak

Deialdia honako oinarri hauek arautzen dute, eta bertan arautzen ez den guztirako azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipatu dekretua garatzen duen Araudia eta aplikagarria den gainerako legedi osagarria hartuko dira kontuan.

Errenteriako Udalak eta Udako Euskal Unibertsitateak betebeharrak hauek aurreikusi gabeko gorabeherak konpondu ahal izango dituzte. Era berean, beka indarririk gabe utzi ahal izango dute, onuradunak betebeharrak hauek egin beharrekoak betetzeke lagako balitu(zte).

15.- Izaera pertsonaleko datuen babesa.

Beka eskaera aurkeztean, oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarriek diotena goitik behera onartzen dituela aitortzen du eskatzaileak. Era berean, adierazten du, eskaeran jasotako datu pertsonal horiek bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatu ematea eta Errenteriako Udalarenak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea; eta baimena ematen du datu horiek udal kudeaketan bakarrik erabili daitezkeen. Hala ere, datu pertsonalak babesteko araudi orokorrean aurreikusitako kasuetan, beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei datuok helarazi edo laga ahal izango zaizkie.

deberá distribuir la obra generada bajo una licencia Creative Commons idéntica a ésta.

14.- Interpretación

La convocatoria se regirá por las presentes bases. En todo lo no dispuesto expresamente, se estará a lo establecido en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006 de 21 de julio, en el reglamento que desarrolla dicho decreto y en la demás normativa aplicable.

El Ayuntamiento de Errenteria y la Universidad Vasca de Verano (UEU) podrán resolver cualquier duda que pudiera surgir de la interpretación de las presentes bases. Igualmente se acordará la rescisión de la beca si hubiera incumplimiento por parte de la/s persona/s beneficiaria/s.

15. Protección de datos de carácter personal

Con la presentación de la solicitud de beca, el/la solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en estas bases y que las acepta íntegramente. Asimismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Errenteria y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en el reglamento general de Protección de Datos de Carácter Personal.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2020SDBD0024-DEKRETUA/DECRETO